

2010-09-21eko EZOHIKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta hamargarren urteko irailaren hogeita batean, arratsaldeko 20:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohiko batzarra egin du Udalbatzak, Marimi Ugalde Zabala alkatea buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Eugenio Loidi jauna, Jose Luis Olano Zubeldia jauna, eta Agustin Zubeldia Iraola jauna.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute: Gregorio Lasa Etxezarreta eta Aitor Lasa Olalde jaunak.

Udaleko idazkariak, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea bazegoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

AURREKO AKTA ONARTZEA (10-07-20).- 2010eko uztailaren 20ko ezohiko saioaren aktaren zirriborroa ikusita, udalbatzak aho batez onartzea erabaki du.

BIGARREN GAIA

ALKATE DEKRETUEN BERRI EMATEA.- Alkateak honako dekretuen berri eman dio udalbatzari:

-2010-05-03ko 49/10 Dekretua: Behin betiko esleitzea "Irurako San Migel Plazaren zati bat birgaitzeko" lanen kontratazioa, Excavaciones Fresneda S.L.-ri.

-2010-05-03ko 50/10 Dekretua: Naturgas Energiari 614,22€ likidatzea erabilpen pribatiboa eta aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasa ordainaraztea.

-2010-05-04ko 51/10 Dekretua: gizarte larrialdiko laguntzak onartzea.

-2010-05-06ko 52/10 Dekretua: Portuberri S.L.-ri Kale Nagusia, 20ko etxea eraisteko baimena ematea.

-2010-05-07ko 53/10 Dekretua: Ignacio Jauregi Garmendiak eraisteko agindua bertan behera uzteko eskaera ez onartzea.

-2010-05-11ko 54/10 Dekretua: 21.318,80 €-ko, hiri altzari osagarrien hornidura behin-behinean esleitzea Garra S.L. enpresari,.

-2010-05-12ko 55/10 Dekretua: Lurra Promoción y Gestión S.L.-k Isidro

Eneaeta Manufacturas Izaskunen egindako urbanizazioaren behin betiko onarpena egitea.

-2010-05-13ko 56/10 Dekretua: Ignacio Jauregi Garmendiak aurkeztutako berraztertze-errekurtsoa atzera botatzea.

-2010-05-14ko 57/10 Dekretua: Xabier Manterolari, biltegia eta beste instalakuntzetarako obra baimena ematea.

-2010-05-17ko 58/10 Dekretua: 52.361,89€-ko batuketa duten apirileko fakturak onartzea.

-2010-05-18ko 59/10 Dekretua: Easydrive S.L.U. enpresari ALKE ATX200E markako ibilgailua erostea.

-2010-05-18ko 60/10 Dekretua: Euskalteli baimena ematea Trainelec enpresari telekomunikazioetarako zerbitzua emateko.

-2010-05-20ko 61/10 Dekretua: 21.318,80 €-ko, hiri altzari osagarrien hornidura behin-betiko esleitzea Garra S.L. enpresari,.

-2010-05-20ko 62/10 Dekretua: Jose Mari Barriolaren LO-4106 ibilgailuari %100eko hobaria onartzea.

-2010-05-21eko 63/10 Dekretua: Eugenio Loidi-ri SS-04549-R matrikula duen atoiak ez duela trakzio mekanikozko zerga ordaindu beharrik onartzea eta 2008 urtetik 2010e3ra bitartean egindako ordainketak itzultzea.

-2010-05-21eko 64/10 Dekretua: Irurako Udal Etxebizitza Tasatuen eskatzaileen erregistroa onartzea.

-2010-05-26ko 65/10 Dekretua: Elena Gabaraini lehen antzinatasun-hirurtekoa onartzea.

-2010-05-27ko 66/10 Dekretua: Hiri eta landa ingurua mantendu eta lehengoratzeko lanetarako 4 pertsona kontratatzeke baldintzak onartzea.

-2010-05-27ko 67/10 Dekretua: Santa Rita eguneko ospakizunetarako diru-laguntza ematea.

-2010-05-28ko 68/10 Dekretua: Arreta Zerbitzuak S-L.-ri fidantza itzultzea.

-2010-05-31ko 69/10 Dekretua: Itsaso Urretagoienaren kontratazioa luzatzea gizarte laguntzailearen lanposturako.

-2010-06-03ko 70/10 Dekretua: gizarte larrialdietarako laguntza onartzea.

-2010-06-03ko 71/10 Dekretua: etxez etxeko laguntza zerbitzua onartzea.

-2010-06-03ko 72/10 Dekretua: telelaguntza zerbitzua onartzea.

-2010-06-07ko 73/10 Dekretua: 73.411,19€-ko batuketa duten maiatzeko fakturak onartzea.

-2010-06-17ko 74/10 Dekretua: Migel Arrospide Aburuza jaunari hainbat obra etetea agintzea.

-2010-06-18ko 75/10 Dekretua: Katategi Bailara 15 zenbakiko etxebizitzaren jabeari tximinia ixteko eta zigilatzeke agindua ematea.

-2010-06-22ko 76/10 Dekretua: 2009ko aurrekontuaren likidazioa onartzea.

-2010-07-01ko 77/10 Dekretua: Nagore Laurobari ibilgailuan egindako kalteak onartu eta ordaintzea.

-2010-07-01ko 78/10 Dekretua: Lau langileen, 6 hileko epean, lanaldi osorako kontratuak ontzat ematea.

-2010-07-28ko 79/10 Dekretua: 48.735,70€-ko aurrekontua duten gastuak onartzea.

-2010-07-28ko 80/10 Dekretua: Miguel Antonio Arrizabalaga jauna solaskide izendatzea Irurako udalaren ordezkari gisa, entitate honek deitutako hautaketa-prozesuetan egin beharreko izapideak eta eskabideak HAUTANET informatika-aplikazioaren bitartez egiteko.

-2010-07-29ko 81/10 Dekretua: 27.883,14€-ko batuketa duten ekaineko fakturak onartzea.

-2010-07-29ko 82/10 Dekretua: Naturgas Energiari 452,92€ likidatzea erabilpen pribatiboa eta aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasa ordainaraztea.

-2010-07-29ko 83/10 Dekretua: Aitor Beitiak, Jauregi-Berri lursailaren xehetasuna azterketari haserako onarpenari ontzat ematea.

-2010-08-02ko 84/10 Dekretua: 7.508,90€-ko aurrekontua duten gastuak onartzea.

-2010-08-11ko 85/10 Dekretua: M^a Teresa Martíni %50eko hobaria aplikatzea ziri-enkaje ikastaroagatik.

-2010-08-13ko 86/10 Dekretua: 130.086,44€-ko batuketa duten uztaileko fakturak onartzea.

-2010-08-17ko 87/10 Dekretua: Gregorio Ameztoy 1-ko eraikineko igogailuaren konponketarako obra baimena ematea.

-2010-08-20ko 88/10 Dekretua: Zillar Kalea 8ko eraikineko fatxadak margotzeko lizentzia ematea.

-2010-08-20ko 89/10 Dekretua: 2799-BSK matrikula duen ibilgailua tratatzea eta suntsitzea.

-2010-09-01ko 90/10 Dekretua: Donostiako administrazioarekiko auzien 2. epaitegian 805/2010 zk.-dun administrazioarekiko auzi-errekurtsioan alderdi demandatu gisa agertzea.

-2010-09-07ko 91/10 Dekretua: 53.273,38€-ko batuketa duten abuztuko fakturak onartzea.

-2010-09-08ko 92/10 Dekretua: Juan José Zubeldiari Agarre etxeko bi etxebizitza berritzeko baimena ematea.

-2010-09-09ko 93/10 Dekretua: Irurako mapa toponimikoa egiteko 1/5000 eskalan, zerbitzua, Geograma S.L. enpresari ematea.

-2010-09-09ko 94/10 Dekretua: Naturgas Energiari 2.694,87€ likidatzea erabilpen pribatiboa eta aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasa ordainaraztea

-2010-09-09ko 95/10 Dekretua: Energía eraginkortasun luminariak hornitzeko Grupo INEC S.A. enpresari ematea 18.011,52 eurotan.

-2010-09-09ko 96/10 Dekretua: Labore-unitateetan dagoen herri-bidearen zati baten ibilbidea aldatzeko obra, Fresneda S.L. enpresari ematea, 9.740,84€tan

-2010-09-10ko 97/10 Dekretua: Angulas Aguinaga S.A.U. enpresari, enpresa barnean hobekuntzak egin eta hotz-ganbera berri bat egokitze baimena ematea.

HIRUGARREN GAIA

**363 m²-KO HERRI-LURSAIL
BATEN KALIFIKAZIO JURIDIKOA
ALDATZEKO ESPEDIENTEA
IREKITZEA.-**

**INICIAR EXPEDIENTE DE
MODIFICACIÓN DE SU
CALIFICACIÓN JURÍDICA DE
PARCELA COMUNAL DE 363M².**

Akordio proposamen honen

Se da cuenta de la siguiente

berri eman da:

Irurako Udala lursail honen jabe da:

“Haztegi zaharra. Mugakide hauek ditu: iparraldean Salsamendiren hariztia, hegoaldean Katategiko hariztia, ekialdean Arrese-Igorren hariztia eta mendebaldean Olarriagaren gaztainadia.

15 area eta 64 zentiareako azalera du”. Herriko ondasun gisa dago kalifikatuta, ondasunen inbentarioaren arabera.

Alde batetik, urte asko dira lursail honi herri-erabilera ematen ez zaiola; aldiz, ondarezko erabilera eman ematen zaio. Honen inguruan, honako hau adierazten dute apirilaren 18ko 781/1986 Errege-dekretuaren 78.1 artikulua eta Toki Erakundearen Ondasunen Arautegiko 100.1 artikulua: herriko ondasunei, bere izaerarengatik edo beste hainbat arrazoiengatik, ez bazaie era honetako probetxurik atera 10 urte baino gehiagoz, badago herri-erabilera izaera kentzea, unean uneko Korporazioaren akordioari jarraiki.

Era berean, komeni da lursail honen 363 m²-ko partzela bat trukatzea partikular baten beste ondasun batengatik.

Aipatutako Ondasunen Arautegiko 8.2 artikuluan ezarritakoaren arabera eta Idazkari-kontuhartzailearen txostena ikusi ondoren, akordio hau egitea proposatzen da:

Lehen.-Honako partzela honi aldatze-espeditatea hastea, herri-ondasun izatetik ondarezko kalifikazio juridikoduna izatera:

“Haztegi zaharra” izeneko udaleko lurzorutik banatu beharreko lurzorua.

propuesta de acuerdo:

Este Ayuntamiento de Irura es propietario de la siguiente parcela:

“Antiguo vivero. Linda por Norte con robledal de Salsamendi; Sur con robledal de Katategui, Este con robledal de Arrese-Igor; y Oeste con castaño de Olarriaga.

Tiene una superficie de 15 áreas y 64 centiáreas”. Tiene una calificación de bien comunal, de acuerdo con el inventario de bienes.

Por un lado este bien hace muchísimos años que no tiene un uso comunal, sino patrimonial. En este sentido el art. 78.1 del Real Decreto 781/1986, de 18 de abril y el art. 100.1 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, señala que si los bienes comunales, por su naturaleza o por otras causas, no han sido objeto de disfrute de esta índole durante más de 10 años, podrán ser desprovistos del carácter de comunales en virtud de acuerdo de la Corporación respectiva.

Así mismo y una parcela del mismo de 363 m². interesa proceder a su permuta, por otro bien de un particular.

De acuerdo con lo dispuesto en el art. 8.2 del citado Reglamento de Bienes. Visto el informe del Secretario-Interventor.

Ante ello, se propone la adopción del siguiente acuerdo:

Primero.-Iniciar expediente de modificación de su calificación jurídica de comunal a patrimonial de la siguiente parcela:

“Parcela a segregarse de la parcela municipal denominada de “Antiguo Vivero”.

363 m²-ko azalera du. Mugakide hauek ditu: iparraldean, Balerdi Urrestarazu ahizpak; hegoaldean, lursail nagusia; ekialdean, lursail nagusia, eta mendebaldean, Jáureguien lursaila”.

Desafektazio espedientea amaitu ondoren, ondarezko kalifikazio juridikodun ondasuna izango da.

Bigarrena.-Espedientea jendaurrean jartzea hilabetez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez.

Hirugarrena.-Behin betiko akordioa Udaltzarak hartuko du, aurkezten diren alegazio edo erreklamazioak ikusi ondoren.

Beraz, Udaltzarak aho batez erabaki du proposamena onartzea.

Erabaki hau izapide-egintza da.

Tiene una superficie de 363 m². Linda por Norte terreno de las Hnas.Balerdi Urrestarazu , por Sur con parcela matriz , por Este con parcela matriz y por Oeste con terreno de Jáuregui.”

Una vez concluido el expediente de desafectación tendrá la calificación jurídica de bien patrimonial.

Segundo.-Someter el expediente a información pública por el periodo de 1 mes, mediante Anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Tercero.-El acuerdo definitivo deberá ser adoptado por el Pleno del Ayuntamiento a la vista de las alegaciones o reclamaciones presentadas.

Ante ello, la Corporación acuerda, aprobar la propuesta presentada.

Este acuerdo es un acto de trámite.

LAUGARREN GAIA

IRURAKO UDALAREN 2010 EKITALDIKO AURREKONTUAREN 1. KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-

Alkatetzak 1. kreditu aldaketaren espedientearen proposamena jakinarazi du, udal honen 2010erako Aurrekontuaren barruan, eta idazkari kontu-hartzaileak eman du honen berri.

Horiek horrela, Udaltzarak ondokoa erabaki du aho batez:

Lehena.- Behin-behineko izaeraz onartzea 1. kreditu aldaketaren espedientea, udal honen 2010erako Aurrekontuaren barruan. Honela laburbilduko litzateke kapituluka:

A) Gastuak handitzea: 345.000€
-6. kapitulua.- Inbertsio Errealak: 345.000€

B) Finantzaketa:

1.- Sarrerak handitzea: 172.000€

2.- 2009ko likidazioko kreditu-soberakina: 173.000€

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea 15 lanegunetan zehar Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez, erreklamazioak aurkez ditzaten. Inork erreklamaziorik aurkezten ez badu, behin betiko onartutzat joko da.

Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da espedientearen laburpena kapituluka.

Erabaki hau izapide-egintza da.

BOSGARREN GAIA

2009ko ONDAREAREN KONTU OROKORRA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-

Udalbatzak aho batez erabaki du udal honetako 2009ko ekonomia ekitaldiko Aurrekontu Orokorra onartzea eta Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaltzea, dagozkion ondorioetarako.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

SEIGARREN GAIA

ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, UDALEKO URTEGIAK KUDEATZEKO ETA USTIATZEKO LANKIDETZA HITZARMENA IZENPETZEA GIPUZKOAKO UR-KONTSORTZIOAREKIN.-

Gai hau mahai gainean utzi da.

ZAZPIGARREN GAIA

UDAL HONEN LANGILEEN ETA LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEA, IDAZKARI KONTU-HARTZAILE POSTUARI DAGOKIO-NEAN.-

Erabaki-proposamen honen berri eman da:

“Eusko Jaurlaritzako Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen zuzendariaren ebazpen bidez, 2010eko uztailaren 23koa dena, Irura eta Hernialdeko udalerriek Idazkaritza postu bakarra elkarrekin mantentzeko osatutako elkartea desegiten da; udal honetako Idazkaritza hori hirugarren mailakoa bezala dago sailkatuta.

Elkarte horren ondorioz, Idazkaritza-Kontuhartzaitza lanpostuak %85eko dedikazioa zuen udal honetan. Elkartea desegin ondoren, dedikazio hori %100era igotzea komeni da. Beraz, beharrezkoa da udal honetako Langileen eta Lanpostuen zerrendan egoki diren aldaketak egitea.

Horiek horrela, honako erabakia hartzea proposatzen da:

Lehena.- Udal honetako Langileen eta Lanpostuen zerrendan, Idazkaritza-Kontuhartzaitza plazari eta lanpostuari dagokionean, ondoko aldaketak egitea:

-PLANTILA.

A)Gaikuntza nazionaleko funtzionarioak.

-Idazkaritza-Kontuhartzailtzako azpieskala.

<u>Plaza kop.</u>	<u>Plaza</u>	<u>Taldea</u>	<u>Egoera</u>
1	Idazkaritza-kontuhartz.	A1/A2.	Jabetza

-LANPOSTUAK.

<u>Izena</u>	<u>Lanpostu mota</u>	<u>Betetzea</u>	<u>Taldea</u>	<u>Eskala</u>	<u>Azpieskala</u>
Idaz.-kont.	<u>S</u>	C	A1/A2	HE	S.-I

Titulazioa	H.E.	Der.Data	Sold.Maila	L.M.O.	Ardur.	O.Bereziak
½	4	01-12-31	23	26	%100	%16

Bigarrena.-Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Honen aurrean, Udalbatzak aho batez erabaki du proposamena onartzea.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du.

Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

ZORTZIGARREN GAIA

EUSKAL FONDOAREN DIRU-LAGUNTZA ONARTZEA.-

Irurako Udala Euskal Fondoaren kide izanik, hainbat proiektu bultzatzeko 2010eko diru-laguntzari dagokionez, Udalbatzak aho batez hau erabaki du:

2.400 €-ko laguntza ematea egitasmo honi:

“Ahuachapio eta El Cortijo etxaldeetan edateko ur hornidura. II fasea. San Francisco Menéndez. AHUACHAPÁN. El salvador.”

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea agortzen du. Haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, 21:30ean eman da amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta idazkari nauzuen honek dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA

IDAZKARIA